

# Izokin arrantzaren historiaz, Bidasoa ibaian, XIV. mendetik XX. mendera

(On the history of salmon fishing, in the Bidasoa river,  
from the 14<sup>th</sup> to the 20<sup>th</sup> century)

Casaubon, Jakes

Eusko Ikaskuntza. 51, Quai Amiral Jaureguiberry.  
F-64100 Baiona

BIBLID [1137-439X (2003), 25; 483-491]

Jaso: 06.04.03  
Onartu: 22.10.03

---

*Gaztelako errege Alfonso VIII.ak, "hiri kutun" izendatu zuenetik (1203), Hondarribiak bere menpean eman zituen Bidasobeko auzo herriak eta izokin arrantzaren monopolioa baietsi. Egoera horrek, eztabaida, aharra eta erahilketak ekarri zituen mendetan zehar. Sare arrapakari berriak asmatu eta erabili zirenetik (15-16. mendean) egoera larrituz joan zen oraino bi erresumen arazo politikoekin betan. Ustiapen gehikorrek espezia desagertzeko hil zorian eman zuen.*

*Giltza-Hitzak: Naza. Traina (sare herrestaduna). Hiri kutun. Frantziako iraultza.*

*Depuis que le roi Alfonse VIII de Castille octroya la charte de ville à Hondarribia (1203), celle-ci obtint le contrôle des villages voisins de la basse Bidasoa et confirma son monopole sur la pêche du saumon. Cette situation fut à l'origine de polémiques, conflits et morts durant des siècles. Depuis l'invention et l'usage de filets pour cette pêche (XV-XVIème siècles) la situation s'est aggravée, en même temps qu'augmentaient les problèmes politiques entre les deux royaumes. L'exploitation de plus en plus importante mit les espèces en danger d'extinction.*

*Mots Clés: Nasse. Traina (filet de pêche à la traîne). Charte de ville. Révolution Française.*

*Desde que el rey Alfonso VIII de Castilla otorgó a Hondarribia la carta puebla (1203), ésta obtuvo el dominio de los pueblos vecinos del bajo Bidasoa y confirmó su monopolio sobre la pesca del salmón. Esta situación fue el origen de polémicas, contiendas y muertes durante siglos. Desde que se inventaron y se empezaron a usar redes para esta pesca (siglos XV-XVI) la situación se fue agravando, al mismo tiempo que aumentaban los problemas políticos entre ambos reinos. La explotación cada vez mayor puso en peligro de extinción a la especie.*

*Palabras Clave: Estanque. Traína (red de arrastre). Carta puebla. Revolución Francesa.*

Mintzaldi hunen dato asko aurkitu ditugu Jean Claude Boucher, Pau-eko Unibertsitateko erakasle den Historia eta Geografia doktoreak, 1990ean argitaratu duen ikerketan.

Ikerketa liburu horren titulua: *Histoire de la Pêche au Saumon, dans l'Adour, les Gaves et la Bidassoa*, Edition Marrimpouey, Pau.

Ikerle hunek eskuratu dokumentuak, Bidaso beheko bi aldetako udal-letxe eta Baionako komertzio eta industria ganbarako artxiboetarik datorz-kigu.

Ikerketa guziz mamitsua, ikuspegi berri bat ekartzen diguna, ikerbide asko idekiz ikerleer historia, soziologia, antropologia-etnografia eta errekur-tso naturalen ustiapen mailetan.

Arrantzaren kudeantza eta ustiapenaren alderako erakaspén gogoetaga-rria emaiten digu erakusten daukalakotz nola, presa ala industriarik etzen garaian, are gutiago kutsadurarik, ustiapén gehikorrek ekarri zuen errekur-tso naturalaren murrizpena, desagertzeko arriskuan emanez ezpezia baliagarrie-na, izokina kasu honetan.

Gaztelako errege Alfontso VIII.ak, 1203an, hiri gutuna izendatuz geroztik eta, ondorioz gotor lekua eraiki zenetik, Hondarribiak menpeko hartu zuen Irun bai eta bere poderea hedatu, larderia, mehatxu eta indarkeria bidez Bidasoaren bi aldetako auzoer.

Hiri gutuna estatutuaren gainean finkatuz, zuzen bidez edo argudio juridi-ko dudakorrez, Bidaso beheko kudeantza osoaren eskubidea, marea han-dienen mugaraino, beti aldarrikatu du eta zaindu, askotan bortizki.

Bidasoko izokin arrantzak, erakusten digu, zoin zailak izan ziren, mendez mende, Hondarribitarren harremanak Irun, Endaia, Urruña eta Biriatu-rekin, bereziki.

## **ARRANTZA MOLDEA**

Ibaia oztopatzen zuten lurrean sartu (h)esol edo zutoin lodi batzuekin, elgarretarik hurbil finkatuak, bi metro eterdi gorakoak. Hesolen artean zeihar-katzen ziren zume abarrak, ura pasatzera uzteko gisan bainan ez tamaño edo neurri pizkorreko arrainik. Fig. 1 Duhamel Dumonceau.

Alde batean bazauden hesol mugikorrek, untzien pasarazteko denboran apal zaitezkenak. *naza* erraiten zioten hesi haier.

Itsasotik igotzen ziren izokinak, hesiaren bekaldean oztopaturik zauden. Ibaiaren alde batetik bestera erabiltzen zuten *traina* deitu sare herrestaduna. Hunekin, itzulikatuz arrapatzen zituzten. Fig. 2 Duhamel Dumonceau.




Fig. 1.




Fig. 2

XVIII. mendean, *traina*-ren erabilpena debekatu zaiotelarik, hesian huts tarte batzuek egin eta pertolak finkatzen zuten haietan. Fig. 3 Duhamel Dumonceau.

1241eko apirilaren 13an, Hondarribitarrek ziotenez, naza baten finkatze-ko eta beko partearen kudeatzeko eskubidea ardietsi zuten Alfonsotso VIII.ganik.

Naza, Pausu edo Behobiako oraiko zubia baino gorago finkatu zuten, Lastaola izeneko baserri aldean, Irungo eta Biriaturko lur hegian.

Irungo eta Biriaturko naza horren finkatzea beren lur mugan etzuten onetsi.

Irundarrekin ziren piztu lehen lizkar edo kataskak. 1337an arerioen arteko kalapita baten ondorioz, bi hilketa izan ziren, Ibañez de Lastaola baserriko irundar semea eta Juan de Lierres, hondarribitarra.

1337ko martxoaren 29an, ehun urteren epeko, bakezko hitzarmena izenpetua izan zen Juan Martin de Lastaola erahilaren anaia eta Hondarribi hiriko ordezkariekin.

Biriaturekin diruz lortu zuten konponketa eta izokin zenbait urtero opariz eskainiz, bainan istilu asko pizten zen nazaren beko aldean.

Irundarrek, erregearen babespean, hiru aldiz nahi izan zuten naza bat eraiki Pausu Behereko ugarte besoetan.

Lehen aldiz 1512an eta eraiki bezain laister Hondarribitarrek desegin.

Bigarrenekotz 1573an, azkenik 1766an. Auzitan ibili ondoren errege konseiluak auzia trenkatu zuen bietan Hondarribiren alde.

Iparralde aldetik, ugartearen eskubialdeko besoetan bazauden bi naza ttiki, bat Endaia-Santiagoko abadearena, bestea Urruña-Urtubiko bizkondearena. Eragin ahuleko nazak izanagatik, Hondarribitarrak lehiatu dira mendez mende hoietsi araztera konpon bidez edo, ezinbestean, bortizkeriz.

XIV. mendetik XVIII garreraino istilu ugari piztu zen naza hoietsi inguruan, Irundarrek eta Iparraldeko auzoek, askotan tirokadak eta desmasiak jasanez.

Adibidez, 1538an Urtubi jaunaren ibai hegiko errota kanoiez destruitua izan zen.

1609an, abadeak Insurako ugartean zaukan txabola, errea bere arrantzako muntadurekin.

Konfliktu izugarriak pizten ziren ere Endaia eta Hondarribitarren artean. Giro erasokor hori ez daiteke berexi, Espainia eta Frantziaren arteko kontexto politiko orokorretik. Estrategiki, Bidaso ibai muturraren kontrola baitezpada-koa zen bi estadoentzat, arrantzako baino are gehiago gerra denboretan eta komertsioa.

Hondarribi gotor leku beldurgarria zen, euskal lurtean gaztelako erregearen podere oinarria, kanoiez zaindua, eragin handiko gobernadore, aintzidari, aitoren seme, lege gizon eta abar, denak erregearen zerbitzari kemenak aterbetzen zauzkala bere arresien barnean. Arresien kanpoaldean bizi ziren 200 bat arrantzari, arrantzaren ekoizpen xoiletik hazten zirenak.

Bidasoz bestaldean Endaia, XVIII. menderaino defentsarik gabeko herri bat zen, 1.500 bat biztanlerekin, gehiena jende pobrea, hoietsi 350 arrantzari urrutiko ur izozdunetan iragaiten zutena urtearen erdia balea eta bakailau arrantzan. Hondarribitarren mesprezua eta larderia jasan behar zuten egunero.

Espainolek indarkeriaz oztopatzen zuten noiz nahi frantsesen ibai gaineko negozioa. Adibidez:

- 1572.an Terranobatik zetorren unti bat bahituz.
- 1608.an unti mordoska bat errez eta mariñelak presoratu.
- 1664.an egurrez kargatuko txalupa bat bahituz.

Noiztenka, halere, Endaiarrak jaukitzen ziren, hala nola 1509.an, nun guduka armatu bat iragan baitzen eta Endaiarrek, Urtubiko bizkondearen arma gizonen laguntzarekin, Hondarribitarrek uxatu baitzituzten. 60 bat hil izan bide zen alde batetik eta bestetik.

Bainan gertakizun izigarriena, luzaz oroimen lazgarria utzi zuena, 1681ean iragan zen. 11 Endaiar arrantzari “Higuerotik” zetorkien beren txalupetan edari batzuek eramanik erregearen untzitan zauden mariñeleri. Hondarribitarrek txalupak bahitu eta 11 arrantzari dohakabeak olio irakitan hilarazi...

Beren aldetik, mendekioz, Endaiarrek ere erahilketa batzuek egin zituzten. Endaiarrek aspaldidanik eskatzen zuten erregearen laguntza. Gauzak doi bat aldatzen hasi ziren Luis XIV.ak gotor leku bat eraikarazi zuenetik Endaian, sei kanoi eta 60 soldadorekin.

Bestalde, ja ikusi dugunoz Frantziak eta Espainiak 1667.an izenpetu itunak ibaiaren erdian finkatzen zuen bi estadien muga sinbolikoa.

Lastaolako nazaren legaltasuna zalantzan ezarri zuen itun horrek.

Itiluak ez ziren sortzen nazen erabilpenarengatik bakarrik, bainan XVI. mendekotz Endaiarrek sareak erabiltzen zauzkatelakotz. “Traina” sare herrestadunaz bestalde “maila” sareak ere hedatzen zituzten, ibai osoa noiz nahi zeharkatuz.

Uler erraza da holako egintzak ekoizpen murrizta uzten zaiola askotan, Lastaolako nazari eta gainera Irundarrek ere sarekin hasi ziren, 1775.eko naza debekuaren ondotik.

Hondarribitarrek ez zaukaten sarerik erabiltzen, Lastaolako nazakoaz aparte. Sare erabilpen hori etzen Hondarribitarrez bakarrik gaitzetsia bainan eztabaidak sortarazten zituen ere Endaiar, Urruñar eta Biriatarren artean.

1785an sare arrantza debekatu izan zen bainan debeku hori sarritan gainditzen zuten Endaiarrek.

Frantziako iraultzak (1789-1799) aldakuntza nabarmenak ekarriko ditu, aitoren seme eta apez nagusien salbuespenak ezeztatuz. Bidasoaren kasuan, abadearen eta Urtubiren nazak eraitsi ondoren, Bidasoa sekulan ez bezala sareez ustiatua izan zen, Endaiarrek bultzaaile nagusia Pellot zaukatarik.

1819.an iparraldekoek 35 sare herrestadun bazauzkaten, 18 Endaiarrek, 12 Urruñarrek eta 5 Biriatarrek.

Pellotek berak alokatu zuen Frantses Estatuari, sareen erabilpen orokorra, utziz ondoren gozamina Endaiar eta Urruñarreer ekoizpenaren laurdena eskuratuz. Jaun horren portaera menpekorra ez zuten gogo onez jasaiten bere herritarrek, baina Pellot, gizon ospetsu, Endaiako alkate, nortasun handikoa, zen bakarrik gai Hondarribitarreek aurre egiteko. Lastaolako sarearen erabiltzea ibaiaren zabaltasun guzian debekarazi zioten eta ordutik naza bermoldatu behar izan zuten pertolak finkatuz hesol tartetetan. Fig. 3.




Fig. 3.

1857.an, nazaren emankortasun murrizta eta iparraldekoek eutsi traba guziak kontutan hartuz naza alde bat itsi eta kendua izan zen.

Hondarribitarrak ere sareekin hasi ziren ordutik ibai muturreraino, istilu asko sortaraziz.

1859an araudi bat hartua izan zen, arrantza sasoina hasi baino 8 egun lehenago bi aldetako arrantzari taldeak ezagutuak izan zaitezten eta marea bakoitzean bi aldetako talde bat zen haizu arrantzan aritzetik. Baina gauaz kontrola hertsirik ez zagon eta sasi arrantzarien egitateak istiluak berriro pitzarazi zituen. Irunen berean 64 sare bazauden, dirudun askok sareak erosi baitzituzten beren meneko langileak arrantzan hasaraziz.

Laister sare ustiapen gehikorrek izokina murriztu zuen nabarmenki. Murrizte horrek beste arrazoin bat ere bazaukan. 6-12 hilabeteko izokin umeak ere milaka bilduak zauden sareez, uda partean ur mehe korrientetan, urte bat edo bikoak udaberrian, saldoka itsasora bidaltzen zirenean.

XIX. mende bukaeran izokinaren gerla gelditu zen izokinik ez izanez edo bederen oso guti.

## **IZOKIN JAKIAREN ARRAKASTA**

Izokina mendetan zehar, izan da jaki prezatuenetakoa aberats mahainetan.

Izokin freskoa jan bazaiteken, arrantza lekuetarik hurbil, garraio luzea eskatzen zuelarik doi bat gazitu behar zen. Garai bateko jendearen gustua jaki zapore pitzgarrietan aurkitzen zen, ezpezia askorekin osaturik.

Molde askotara apaila zaiteken, egosirik, ezpezia askorekin edo xerraka errerik, kanela itzez xiztaturik. Erre ondoren, azukre, kanela eta ozpinez osaturiko onkailu batekin zerbitzatua zen.

Izokin pateak ere arrakasta handia zuen bertako hirietan bezain Zaragoza eta Madrilen. Garizuma denboran zuen arrakastarik handiena eta mehe egunetako penitentziatzko janaria zagon handi mandi mahainetan.

Doi bat gazitu ondoren, bost egunez bidaltzen zuten Madrileraino. Treinak eta burdin bideak eraiki zirenetik izokin freskua zerbitzatua zaien Madrileko aho xurieer 24 orduren buruko.

Upeltxoetan metaturik, aurretik idorrazazi eta gaziturik ere saltzen zen, bereziki itsasoz bideratzen zirelarik. Baionako portutik 1756-1760 urtean, 644 izokin kupeltxo bidalduak izan ziren Espainiara, gutienez 32 tonelada.

Errege, gobernadore, apez nagusi eta beste eragin handiko jauneer eskaintzeko opari prezatuenetakoa zen.

Mahain azpiko oparia ere zen, Hondarribiko artxiboek salatzen digutenaz, opari "korruptorea", erregearen kidekoen fagoreen ardiesteko.

Aitoren seme eta aberats ontasunen alokatzaile ziren kontratuetan errenta sari gisa kontutan hartua zen.

## **IZOKINAREN UGARITASUNAZ**

Dokumentu zahar batzuek, bai eta ahozko ohidurak errepikatzen dute garai bateko izokinaren ugaritasuna, nagusi langileen arteko zenbait kontratuetan azpimarratua dagolakotz izokin sasoiari nagusiek, astean bi aldiz bakarrik jatera eman zezaten.

Garai bateko ugaritasuna probatu nahi luke langileen eskaerak. Jakin behar da gutitan zitzaiotela itsasotik igo berri ziren izokin freskorik mahaineratzen, bainan bai ugaltzen denboran eta ondoren, nazetan edo beste zepoetan harrapatu izokin mehe, ugalketak ilaunduak, itsaso alderat ur korrientek zermazatenak, haragi zurpail, idor, iztupatsu, toxinaz betekoak. Izokin fresko, gizen, haragi arrosa koloredunak arrakasta handiegia zaukan langileer jatera emaiteko.

Artxiboetan aurkitu datoetarik ez dezakegu ugaritasunaren azterketa razional bat atera.

Santiagoko abade eta Urtubiren nazen konturik ez dugu aurkitu. Suertez, Lesaka eta Irungo paper zaharreek jasaiten dituzte XVII eta XVIII. mendeko urte batzuetako ekoizpen kontuak. Hondarribiko udaletxeak dauz-kigu bere artxibo guziz aberatseri esker azaltzen zehazki Lastaolako nazaren kontuak.

1716 eta 1785a arteko kontuak daude baliagarrienak, arrain kopurua eta askotan arrain bakoitzaren pisua emanak baitaude. Baionako industri eta komertsio ganbaran, bai eta Itsas minizteritzako artxiboetan aurki daitezke Bidasoko arrantzaren dato zenbait.

XVII. mendeko Lastaolako nazaren ekoizpena oso desberdina agertzen da urte batetik bestera, dirudiz 200 kilo apalenean, 5 tonelada 400 kilo gorenean.

Berako nazaren ekoizpena, beti XVII. mendean, 500 kilokoa zen dirudiz, Lesakakoa 300 kilokoa, bana beste.

XVIII. mendean Lastaolako nazaren ekoizpena tonelada batera jeutsia zagon, Lesakakoarena 150 kilokoa.

1820-1830 hamarkadan Endaiar eta Irundar sarelariek 3 tonelada bat harrapatzen zuten bana beste urtero eta beste arrantza molde guziak kontutan hartuz 4 bat tonelada. Mende ondarrerat, 1880 aldean, 3 toneladako bat, bana beste, Luis de Urantzuren erranetik.

Oso interesgarriak daude Hondarribiko nazaren 1716-1785 arteko ekoizpen kontuak. Erakusten digute urte batetik bestera izaten ziren gorabeherakadak.

Bidasoaren izokin arrantzaren historiari buruzko ikerbideek ugaritasun bizkorra salatzen badigute, zenbait urtez bederen, Bidaso bezalako ibai labur eta emari apaleko batentzat, urrun gare, leienda eta esan topikoek aldarrikatzen dutenetik.

## **BIBLIOGRAFIA**

Bidasoaren izokin arrantzaren historiari buruzko zunbait ikerbide.

### **Estatuko artxiboak:**

Simancas: K 1626 – K 1473- A 75.

### **Probintzietako artxiboak:**

*Nabarra* "Límites del reino", leg. 4, Carp. 3.



**Udaletxetako artxiboak:**

Bera: ser. 634-1.  
Lesaka: cart. 38 ser. 3 gr. 4  
          Cart. 1 ser. 9 gr. 3 (1717-1738)  
Irun: cart. 28-29 ser. C neg. 5 seri. 1  
Hondarribia ser. C, neg. 2 – E. VI, 6

**Frantzia:**

Estatuko artxiboak:

Ancien Régime – Fond marine – série C3, C5-23, C5-51, C5-53  
Quai d'Orsay – XVII-XVIII mendekoak guziz aberatsak  
Ministère de la Marine – Rochefort

Departamenduetakoak:

Gironde departamentukoak: C89 C 98  
Pyrénées-Atlantiques: C114 – série Q – série 111 E, J 160